

Europa Gascan erabakiko da

- Bera Berak Europako Ligako multzoen fasean egon nahi du.
- Horretarako, lau golen aldea irauli beharko du etxean, Lublinen aurka.

Beñat Mujika Telleria

Bera Berak Europako Ligako hirugarren kanporaketaren itzuliko partida jokatu du gaur, Donostian, Lublinen aurka (12:00, ETB1). Poloniarrek donostiarrak baino lau gol gehiago sartuz irabazi zuten joaneko partida; hortaz, lau gol baino gehiagoren aldea behar du Imanol Alvarezen taldeak Europako Ligako multzoen fasean egon nahi badu —penaltietan erabakiko da kanporaketa baldin eta aldea soilik lau golen bada—. Bost urtez jarraian ligaxkaren atarian geratu dira donostiarrak, eta, iaz, gol baten aldeagatik. Arantza atera nahi dute gaur.

Europako Ligako multzoen fasean egotea da Bera Berak bere buruari jarri dizkion erronketako bat aurtengo denboraldian. Bost urtez jarraian egin die ihes aukerak, eta seigarrenean ez



Bera Berako jokalariek Gascan. A. CANELLADA / FOKU

dute hutsik egin nahi. Polonian ondo lehiatu ziren arren, azken minutuetan abantaila hartu zuen etxeko taldeak: 23-19. Gaur, ordea, zaleen aupada izango dute, eta hori baliatu nahi dute denboraldiko helburuetako bat betetze-

ko. Denboraldiko partida garrantzitsuenetako bat izanik, klubak aurreikusten du Gasca kiroldegia goraino beteko dela.

Partidaren garrantziaz ohartarazten ahalegindu dira asteon Tati Garmendia presidentea eta Imanol Alvarez entrenatzailea. Garmendiak prentsaurrekoa eskaini zuen egun handirako antolatu duten egitaraua azaltzeko. Presidenteak dioenez, «denboraldiko partidarik garrantzitsuen» izango da gaurkoa: «Europar beti bizi izan ditugun une berezi horiek berriro bizi nahi ditugu. Uste dut helburua lortuko dugula. Lau golen aldearekin irabazi baina itzuliko partida etxetik kanpo jokatu behar duzunean, aldea ez zaizu hainbestekoa iruditzen. Europak esanahi berezia du jokalarientzat eta zaleentzat, eta ezinbestekoa izango da haien babesak».

Alvarezek ere uste du taldeak baduela «ligaxkara sailkatzeko aukera», eta haien eskuetan egongo dela lortzea edo ez: «Kanporaketa gainditzeko, eraso on bat beharko dugu. Lauzpabost golen aldearekin irabazi nahi badugu, behartuta egongo gara 25 edo 30 gol inguru sartzera. Ondo hastea izango da gakoa, eta, neurketa aurrera joan ahala, ikusiko dugu zertan arriskatu behar dugun».

Taldeak orain arte egindako lanari erreparatuta, Alvarezek argi dauka jokalariek gora egiten dutela taldea bolada gozoan dagoenean. Bolada txarrek, ordea, eragin handiegia dute jokalarien errendimenduan, haren ustez. «Oraindik ez dugu egoera horiek menperatzen ikasi, eta partida honetan beharrezkoa izango da zaleen bultzada; batez ere, bolada txarretan».

HITZ GUTXITAN

Beti Onak-ek 25-16 garaitu du Porriño

ESKUBALOIA— Beti Onak-ek bolada txarra eten zuen atzo, etxean irabazita. Porriño laugarren sailkatua garaitu zuten (25-16). Nafarrak ligako azken bi partidak galduta iritsi ziren neurketara, baina atzo nagusi izan ziren, hasi eta buka. 12-8 joan ziren atsedenaldira, eta bigarren zatiren hasieran aldea handitzea lortu zuten Atarrabiakoek.

Bestalde, Anaitasunak gaur jokatu du Asobal ligako bederatzigarren jardunaldiari dagokion partida. Nafarrek Villa de Arandari egingo diote bisita (17:30). Etxeko taldea jaisteko postuetan dago, eta nafarrek, berriz, aldea handitu nahi dute haiekin, soilik partida bat gehiago irabazi baitute.

ACBko eta Ohorezko Ligako partidak, gaur

SASKIBALOIA— Gorengo mailan ari diren sei euskal taldeek jokatu dute gaur. ACB ligan, arratsaldean ariko dira Bilbo Basket eta Baskonia. Bilbotarrek Joventut hartuko dute, eta Baskoniak Zaragozari egingo dio bisita. (17:00, Movistar). Ohorezko ligan, euskal derbia jokatu dute Ardoik eta IDK-k (12:00). Bestalde, Gernikak Jairisen etxean jokatu du, eta Araskik Estudiantes hartuko du (17:00).

Eibarrek galdu egin du Madril CFFren aurka

FUTBOLA— Eibar burua altxatu ezinda dabil oraindik ere. Gipuzkoarrek Madrilen jokatu zuten atzo, Madril CFFren aurka, baina esku hutsik itzuli ziren etxera (2-1). Allegra Poljakek aurreratu zituen etxekoak lehen zatiko azken minutuan, eta bigarren zatian aldea handitu zuten Kayla McKennaren gol bati esker. Ane Camposek sartu zuen eibartarren gola, baina beranduegi zen.

«Ondo hastea izango da gakoa, eta, neurketa aurrera joan ahala, ikusiko dugu zertan arriskatu behar dugun»

IMANOL ALVAREZ
Bera Berako teknikaria

Abentura erraldoia
Salba dezagun kalejira

Gorka Bereziartua eta Adur

Ipuina **12€** + Bidalketa gastuak
azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45